

EUSKARA SAILEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK. 2020

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da Hernaniko Udalak, Euskara Sailaren bidez, ematen dituen dirulaguntzak arautzea.

Oinarri hauek dirulaguntzak emateko udal-arauaren 7. artikuluan ezartzen denaren arabera finkatu dira. Udal-araua 2004ko abenduaren 22an Udalbatzak onartu zuen eta 2005eko abenduaren 21eko Udalbatzak egokitu egin zuen.

2. Dirulaguntzak zertarako.

Dirulaguntzak euskara ikasteko, UEUren uda-ikastaroak egiteko, merkataritzako eta elkarteetako hainbat jarduera euskalduntzeko, aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egiteko eta kirol udalekuetako matrikulak ordaintzeko.

3. Aurrekontua eta programak.

Deialdiaren helburuak gauzatzeko, Hernaniko Udalak 2020rako ondoko aurrekontu hauetatik bideratuko ditu dirulaguntzak:

- | | |
|--|----------|
| - 02.481.01.335.00. "Euskara Zerbitzua: Norgehiagoka bidezko diru-laguntzak" | 54.000 € |
| - 02.480.01.335.10. "Euskaltegia: Bekak" | 33.500 € |

4. Bete beharreko baldintzak

Ondoko baldintza hauek betetzen dituen herritar orok du dirulaguntza jasotzeko aukera.

A. Aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egiteko (2019-2020 ikasturtea)

- Hernanin erroldatuta egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua.
- Alderdi teorikoa gainditzea eta, araututako gehienezko epearen barnean, titulua lortzea.

B. Elkartearen jarduera euskalduntzeko (2020 urtea):

B.1. Webguneak

- Euskara hutsezko webgunea izatea edota, ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua ematea.
- Elkartea Hernanin kokatuta egotea.

B.2. Programa informatikoak

- Euskarazko programa izatea, eta Elkartearen jarduera bideratzeko lagungarri izatea.
- Elkartea Hernanin kokatuta egotea.

C. Euskara ikasteko (2019-2020 ikasturtea)

- Hernanin erroldatuta egotea.
- Zorretan ez egotea Udalarekin.
- Gutxienez eskolen %85ean agertu izana ziurtatzea.
- Egin beharreko ebaluazio-probak egitea.
- Matrikula, jarritako epean ordaintzea.

D. Merkataritzako jarduerak euskalduntzeko (2020 urtea)

D.1. Errotuluak

- Errotulua euskaraz jartzea.
- Testua zuzen idatzita jartzea.
- Errotuluan izen propioa soilik ez agertzea.
- Jarduera ekonomikorako Udal baimena izatea.
- Zerga guztiak ordainduta izatea, Udal mailakoak eta Gizarte Segurantzakoak barne.
Egiaztapena ofizioz egingo da.

D.2. Webguneak

- Euskara hutsezko webgunea izatea edota, ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua ematea.
- Jarduera ekonomikorako Udal baimena izatea.
- Zerga guztiak ordainduta izatea, udal mailakoak eta Gizarte Segurantzakoak barne.
Egiaztapena ofizioz egingo da.

D.3. Programa informatikoak

- Euskarazko programa izatea, eta jarduera komertziala bideratzeko lagungarri izatea.
- Jarduera ekonomikorako Udal baimena izatea.
- Zerga guztiak ordainduta izatea, Udal mailakoak eta Gizarte Segurantzakoak barne.
Egiaztapena ofizioz egingo da.

E. Udako Euskal Unibertsitatearen uda-ikastaroa egiteko (2020 urtea)

- Hernanin erroldatuta egotea.
- Zorretan ez egotea Udalarekin.
- Ikaslea, erretiratua, desgaitasuna izatea nahiz langabezian egotea.

F. Hernaniko udalak Aisialdi talde batekin elkarlanean antolatutako Kirol Udalekuetako matrikulak ordaintzeko (2020 urtea)

- Hernanin erroldatuta egotea.
- Zorretan ez egotea Udalarekin
- Familia-unitatearen diru sarreraren arabera (ikus udaleku irekietarako matrikula ordainketarako udalak onartu dituen hobarien taulak)

5. Eskabideak.

Dirulaguntza eskaerak honako leku hauetan aurkeztu daitezke:

→ Aurrez aurre:

hhz bulegoa 943 33 70 00

Udaletxeko beheko solairuan

Orduetgia:

Astelehenetik ostiralera: 08:00-19:00

Hilabeteko 1. eta 3. larunbatetan: 10:00-13:00

Euskara Zerbitzua 943 33 70 29

Udaletxeko 1. solairuan

→ Internet bidez:

www.hernani.eus-en izena emateko orria eskuratu eta e-mailez bidali euskara@hernani.eus

Dirulaguntza jaso ahal izateko, honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Bateratua: edozein dela ere eskatutako dirulaguntza

1. Dirulaguntza-eskabide normalizatua (honekin batera doa eredua), behar bezala beteta.
2. Nortasun Agiriaren edo IFKren (Identifikazio Fiskalerako Kodea) fotokopia.
3. Gastuaren justifikazioa.

b) Berezitua: Dirulaguntzaren arabera

1) Aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egiteko:

- Ikastaroa antolatu duen aisialdi eskolaren ziurtagiria, adierazten duena alderdi teorikoa gainditu duela.

2) Elkartearen jarduera euskalduntzeko:

- Webgunearen helbidea, edota programa informatikoa instalatu dela erakusten duen frogaren bat.

3) Euskara ikasteko dirulaguntzen kasurako:

- Euskaltegiak, ikastaroa amaitutakoan, egindako ziurtagiria. Ziurtagiri honek jaso behar du ikaslearen asistentzia-portzentajea.
- Langabetua, ikaslea, erretiratua edo desgaitasuna izanez gero, egoera hori ziurtatzen duen agiria.

- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, Erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko deklarazioa edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa.

4) Merkataritzako jarduerak euskalduntzeko:

- Errotuluaren argazkia, webgunearen helbidea, edota programa informatikoa instalatu dela erakusten duen frogaren bat.

5) Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroak egiteko:

- Langabetua, ikaslea, erretiratu edo desgaitasuna izanez gero, egoera hori ziurtatzen duen agiria.
- Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroko matrikularen ordainagiria.

6) Hernaniko Kirol Udalekuetan matrikula ordaintzeko:

- Familia unitatearen azken ekitaldiko errentaren gaineko zerga aitortenaren fotokopia.
- Errenta aitortena egin beharrik ez bada, Errenta aitortenaren Laburpena izeneko ziurtagiria, Lan bizitzari buruzko ziurtagiria eta jasotzen dituen prestazioen ziurtagiriak.
- Prestazio Sozialak jasotzen dituen kasuan, agiria aurkeztu beharko da.
- Hernaniko udalak dituen Onura Fiskalak tramitatuta baldin baditu 2017an, ez du dokumentazioa aurkeztu beharrik eta bertan aplikatu zaion onuraren pareko dirulaguntza izango du.

Eskatzaileen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela, eta Udalak berak ere hori hala dela baldin badaki, eskatzaileak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, Udalak nahi beste informazio eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

6. Epeak.

Euskara ikasteko eta UEUren uda-ikastaroak egiteko eskabideak matrikula formalizatu ondoren aurkeztu behar dira.

Errotulu komertzialak jartzeko eskabidea, berriz, jarri aurretik egitea komeni da, beti ere 2020ko urtearen barnean, testua hizkuntzaren aldetik zuzena dela ziurtatzeko.

Kirol udalekuetako matrikula ordaintzeko, udalekuetarako matrikula epearen barnean.

Gainerako dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epe jakinik ez dago, baina, beti ere, 2020ko urtearen barnean eskatu behar da.

Dokumentazioa eta informazioa lortzeko eta eskabideak aurkezteko lekua: *HHZ-Herritarren Harrera Zerbitzua*. Informazioa Udalaren webgunean ere lortu ahal izango da: www.hernani.eus

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan-eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.

Eskabidearen kopia bat eskatzaileak berak jasoko du eta bestea HHZ-n geldituko da Euskara Zerbitzura bideratzeko.

7. Dirulaguntzaren zenbatekoa, eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza-eskabideei buruzko erabakia hartzeko eskumena Euskara Saileko delegatuak izango du.

1) Zenbatekoa (ikus I. Eranskina)

2) Ordainketa modua

Kasuan kasuko dirulaguntza, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztenei besterik ez zaie ordainduko eta, betiere, gastua egin eta frogatu ondoren.

Euskara ikasteko dirulaguntzei dagokionez, ordainketa bi epetan ordainduko zaie ikasleei. Horretarako, gainera, euskalategiak egindako txostena aztertuko da aurretik, eskatzaileak bete beharreko baldintzak bete dituen jakiteko.

Merkataritza arloari dagokionez, dirulaguntza jaso ahal izango dute:

- Establezimendu berriek nahiz errotulua aldatu nahi duten zaharrek.
- Establezimenduetako nahiz ibilgailuetako errotuluak lagundu daitezke.
- Behin bakarrik emango da dirulaguntza, baldin eta jarduera edo jabetza aldaketarik ez badago.

Erabakia idatziz jakinaraziko da eta erabakiaren zergatiak ere jaso egin beharko dira bertan. Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa bada, beste datu hauek ere agertuko dira jakinarazpenean: dirulaguntzaren zenbatekoa, nola ordainduko den eta nola zuritu beharko den, eta oinarrietan jasotako gainerako betebeharrak guztiak.

8. Ebazpen-epea eta jakinarazpena

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da gehienez ere, dokumentazioa aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Kasu guztietan (dirulaguntza onartu ala ez) ebazpenaren berri emango zaio eskatzaileari.

Dirulaguntzen berri Udaletxeko iragarki-oholtzan emango da, Gipuzkoako Aldizkarian argitaratutako ebazpenaren laburpena jasoz. Baina, emandako dirulaguntzak, banaka hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean, nahikoa izango da Udaletxeko iragarki-oholtzan jartzea.

Eskatutako dirulaguntza ematearen aldeko edo kontrako berariazko ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Ebazpen horren kontra Administrazioarekiko Auzi errekurtsioa jarri daiteke, Gipuzkoako

Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko apean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita; eta, nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzi errekurtsua jarri aurretik, Berraztertze Errekurtsua jar dakioko ebazpena eman zuen organoari.

9. Ez betetzea.

Oinarri hauetan edo dirulaguntza emateko oinarrietan finkatzen den baldintzaren bat beteko ez balitz, dirulaguntza errebisatu eta, ezereztu, murriztu edo itzularazi egingo litzateke, kasuan kasu (dirulaguntzak emateko Udal-ordenantzak agintzen duenaren arabera).

Dirulaguntza itzularazteko prozedura laguntza eman duen organoaren eskariz abiatuko da. Dirulaguntza ezerezte, murriztea edo itzularaztea erabaki daiteke, beti ere arrazoituta; eta dirulaguntzaren onuradunak eskubidea izango du, prozeduran zehar, bere iritzia edo argudioak emateko.

10. Klausula gehigarriak

2020rako dirulaguntza oinarri hauek onartu aurretik eskatu dutenek ez dute berriro ere eskaera aurkeztu beharrik izango.

I. eranskina

Dirulaguntzen zenbatekoa

1. Aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egiteko

1. Begirale ikastaroa egiteko: matrikularen %30a (150 euro gehienez).
2. Zuzendari ikastaroa egiteko: matrikularen %30a (90 euro gehienez).

2. Elkaratearen jarduera euskalduntzeko

2.a. Webguneak

1. Euskara hutsezko webguneak edota, ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, eta lehen orrian euskarazkoa lehenetsita: **kostuaren %50, gehienez ere 450€.**
2. Ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, baina lehen orrian euskarazkoa lehenetsi gabe: **kostuaren %30, gehienez ere 300€.**

2.b. Programa informatikoak

Euskarazko programa informatikoak erosteko, elkaratearen jarduera bideratzeko lagungarri direnak: **kostuaren %50, gehienez 750€.**

3. Euskara ikasteko

A) ASTEAN 10 ordutik beherako ikastaroak: Ikastaro arruntak eta autoikaskuntzakoak

B) ASTEAN 10 ordutik gorako ikastaroak

C) BARNETEGIAK

A. ASTEAN 10 ordutik beherako ikastaroak: Ikastaro arruntak eta autoikaskuntzakoak

Langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsoneri: matrikularen %90a.

Gainerakoei: matrikularen %70a.

* Dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Erdia ikastaro amaieran, eta beste erdia irailan.

B. ASTEAN 10 ordutik gorako ikastaroak

Langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsoneri: matrikularen %100a.

Gainerakoei: matrikularen %75a.

Gehieneko dirulaguntza: A eta B ikastaroen kasuetan, ikasturteko, gehienez, diru kopuru jakin bat jaso ahal izango da. 2015-16 ikasturtean gehienezko diru kopurua 500 eurokoa izango da.

C. BARNETEGIAK

Langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsonei: matrikularen %100a.

Gainerakoei: matrikularen %75a.

Gehieneko dirulaguntza: Urtean zehar hiru barnetegi lagundu ahal izango dira gehienez.

Egoitza-gastuak ez dira diruz lagunduko.

4. Merkataritzako jarduerak euskalduntzeko

4.a. Errotulu komertzialak

Euskara hutsez idatzitako errotulua: errotuluaren kostuaren %75, gehienez ere 400€.

4.b. Webguneak

1. Euskara hutsezko webguneak edota, ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, eta lehen orrian euskarazkoa lehenetsita: **kostuaren %50, gehienez ere 450€.**
2. Ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, baina lehen orrian euskarazkoa lehenetsi gabe: **kostuaren %30, gehienez ere 300€.**

4.c. Programa informatikoak

Euskarazko programa informatikoak erosteko, jarduera komertziala bideratzeko lagungarri direnak: **kostuaren %50, gehienez ere 300€.**

5. UEUko Uda-ikastaroak egiteko

Matrikularen %100. Ez da dirulaguntzarik emango egonaldia ordaintzeko.

6. Kirol udalekuetako matrikulak ordaintzeko

1. Matrikularen %90a, edo
 2. Matrikularen %50a.
- Familia unitatearen diru sarrera eta famliako kide kopuruaren arabera.